

Epea: 2020ko azaroaren 9ra arte

A) 2019-2020 ikasturtean beka eskatu zuen ikasleak:

- Tutoreak ikasgelan banatuko du bekako inprimakia.
- Berraztertu aurregrabaturiko datuak zuzenak direla.
- Inprimakiaren atzekaldean interneteko helbide bat aurkituko duzu, zeinetan zure bekaren eskaera balidatu dezakezun.
- Horretarako, ikaslea (adinduna bada) edo aurreko ikasturtean tramiteak egin zuen aita/ama edota tutore legaren NANA (eta iraugitze-data) beharko duzu.
- Prozesuan derrigorrez eskatuko dizute:
 - Ematen badizute, beka jaso ahal izateko kontu zenbaki bat. Beka ebazpenaren ondoren ikastetxeak sartzea nahi baduzu, ikastetxeari baimena emateko laukia markatu beharko duzu.
 - Prozesua amaitzerakoan baliozkotu izanaren egiaztagiria bidaliko dizuten posta elektronikoko helbide bat.
- Aurkezteko dokumentazioa: Eskabide-orrian jasotako dokumentaziotik 2019-2020 ikasturtean aztertutako egoerarekin alderatuta aldatetak justifikatzen dituzten dokumentuak bakarrik aurkeztu beharko dira. 2019. urtean bizikidetzta-unitatean lortutako diru-sarrereri dagokienez, Hezkuntza Sailak zerga-administrazioen bidez lortu ezin dituen diru-sarrera guztien egiaztagiriak bakarrik aurkeztuko dituzte (Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo tributatzen dutenean, PFEZren Adierazpena edo beste edozein).
- Prozesu hau egiteko ikastetxeko mediateka daukazu bere ohiko ordutegian irekita. Mendizorrotzaren kasuan, Nieves Canora joan zaitezke.
- Laguntza behar baduzu, Idazkaritzagatik pasa zaitezke ere.

Gogoratu hitzordua eskatu behar duzula
helbide honetan:
www.egibide.org/citaprevia

B) Aurreko ikasturtean diru-laguntzarik eskatu EZ zuen ikasleak:

- Bekako lehenengo parte egin dezakezu www.hezkuntza.net web-orriaren zehar eta bekaren erregistroa idazkaritzan egingo dizugu.
- Campuseko mediateka daukazu bere ohiko ordutegian irekita. Mendizorrotzaren kasuan, Nieves Canora joan zaitezke.
- Laguntza behar baduzu, Idazkaritzagatik pasa zaitezke ere.

Gogoratu hitzordua eskatu behar duzula
helbide honetan:
www.egibide.org/citaprevia

Ebazpenen jakinarazpenak eta laguntzen ordainketa

Behin-behineko eta behin betiko ebazpenaren jakinarazpena Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-oholean argitaratuko da; <https://euskadi.eus>

Ohole horretan argitalpenak egiten direnean, **sistemak jakinarazpen bat bidaliko die interesdunei SMS mezuen bidez edo posta elektronikoko mezuen bidez.**

Alegazioak (15 egun) edo gora jotzeko errekurtsioak (1 hilabete) aurkezteko epeak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-oholean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira zenbatzen.

Laguntzen ordainketa behin bakarrik egingo da behin betiko ebazpena eman eta hilabeteko epean.

Ikastetxetik, beka-eskabidean adierazitako mugikor zenbakiaren edo posta elektronikoaren zain egotea gomendatzen dizuegu, ebazpenen jakinarazpenen jakinaren gainean egon ahal izateko